

Egilea: Saioa Miren Alonso Sudupe

LIBURUEN AZPIAN EZKUTATURIKO HISTORIAKO PROTAGONISTAK

Historiak protagonistak izan ditu, ala ez? Nortzuk dira? Edo hobe esanda, nortzuk direla esaten digute?

Lehenik eta behin, protagonista terminoa ondo azaldu behar da. Elhuyarren arabera hau da: *protagonista ekintza bultzatzen duen pertsonaia da, gehien axola zaigun patuarena*. Hau da, protagonista gauza garrantzitsu edo esanguratsuenak egin edo deskubritzen dituen da. Adibidez, pertsona batek bere bizitzako agintea badu edo berreskuratzen badu, bere bizitzako protagonista izango da, eta azpimarratzekoa da honelako jende oso gutxi dagoela munduan.

Hau kontuan hartuta, eta gure ezagutza historikoak baliatuz, konturatuko gara Historiak badituela protagonistak. Hau onerako eta txarrerako da; izan ere, protagonista bere akats edo hanka-sartze batek egin dezake. Honen adibide da Robert Scott, Antartikara joateko bere espedizioaren porrotak egin baitzuen famatu. Beste protagonista asko daude: Karlos I.a, Kristobal Kolon, Adolf Hitler, Francisko Franco, Juan Sebastian Elkano, Roald Amundsen, eta zerrenda amaigabe bat. Askori atentzioa deituko zien emakumeen izenik ez agertzea, nahiz eta badauden: Marie Curie, Anne Frank, Gaztelako erregina, Isabel II (Ingalaterrako erregina)...



Historian emakumeak ere izan gara, baina non? Amaia Nausiak dio “oso modu ezkorrean irudikatu izan gaituzte beti. Gizarte patriarkala sortu zenetik, emakumeen irudia lotsagarria da: gaitz guztien iturritzat hartzen gaituzte”. Emakumeen menpekotasuna justifikatzeko, intelektualki eta biologikoki ahulagoak garela diote. Horrez gain, sistematik edo gizartetik baztertuak izan dira “eurei dagokien rola” betetzen ez duten emakumeak: etxeke lanak egitea, kozinatzea. Historiografia mota honek hau lortu du: emakumeok gure iraganaren eta historiaren kontzientziarik ez izatea. Gainera, emakumeak eta umeak izan dira gerraren ondorio gogorrenak bizi zituzten eta dituztenak. Gizonak etxetik joanda, emakumeek etxearen eta umeen kargua edo zaintza (eta beraien buruarena, askotan bigarren eremuan utzita) beraiengan hartzera behartuak izan ziren, nahiz eta dirurik ez izan. Gerren sarraskia

lehen pertsonan bizi izan zuten. Honekiko duten meritua kentzea emakumeen kontrako indarkeria modu bat delakoan nago, zeharkakoa, baina bada. Gainera, emakume asko ezin izan ziren iritsi euren lorpena munduari zabaltzera.

Goian emakume protagonistei buruz hitz egin dut, baina ez dugu emakume xumeez hitz egin, desagertuak izan zirenak eta urte batzuk geroago hilerri edo kaleetan hilda aurkitu direnak, euren bizitza modurik krudelenean lapurtu zaien gu geu bezalako emakumeak. Alargun geratu ziren guztiak. "Eurei zegokien rola" bete ez zuten zigortuak izan ziren emakumeak. Gizon baten itzalean bizi behar izan ziren emakumeak, sorgintzat hartu eta erre zituzten beste haiek.



Urtero hiltzen edo desagertzen diren emakumeak. Beraien eta beraien ingurukoei lapurtutako bizitza bakoitza da gaur egun oraindik ere ikasteko geratzen zaiguna.



Gizonak gerrara joan ziren, baina herrixketan geratu zirenak emakumeak ziren, eta gerraren sarraskiari aurre egitea norbaiti eskertu behar bazaio emakume horiei da: janaria izateagatik, medikuak, baliabideak... Hauengatik izan ez balitz agian gerren ondorioak gaur egun bizitzen jarraituko genituzke, euren lanagatik ez balitz agian hondamendian bizitzen jarraituko genuke. Belaunaldiz-belaunaldi ukatu egin zaigu gure iragana, geure egiazko historia. Sinetsarazi zaigu ez dugula historiarik egin, geure funtzio bakarra etxeko lanak egitea zela, eta hori emakumeen eginkizuna oso modu krudelean gutxiestea da. Historia liburuen azpian ezkutatu nahi izan dira emakumeak.

Gaur egun ere emakumeen borroka gutxietsi egiten da, matxismoa ukatuz. Egia da asko sinplifikatzen dela sorginen alabak garela diogunean, baina ukaezina da agian berreskuratu egin beharko genukeela emakume horien memoria, nondik gatozen ikusteko, berriro ere zapalduak ez izateko, eta zapaltzen bagaituzte, indarrez zutik jartzeko.

